

Erf.: Bake epailea eta ordezkoa izendatzeko proposamena onartzea
Epediente zk.: 2017/12

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Bake epailea eta ordezkoa izendatzeko proposamena onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Lehenengoa: EAEko Auzitegi Nagusiak, 20016ko azaroaren 8an bialdutako idazkariaren bitartez, Bake epailearen eta ordezkoaren lau urterako izendapena agortu danez, bake epaile eta ordezko barriak izendatzeko eskaria egin eban.

Bigarrena: 2016ko abenduaren 1ean, udal Osoko Bilkureak, Bake epailea eta ordezkoa izendatzeko baldintzak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Hirugarrena: Deialdi publikoa, iragarki bidez iragarri zan, 2017ko urtarrilaren 4an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

b) Oinarri juridikoak

Lehenengoa: Iragarki horren arabera emondako hilabeteko epean, hautagai ezbardinak jaso ziran eta, oinarrietako erispideen arabera, puntuaketak honako honeek izan ziran:

1	AINARA BILBAO LAKA	4
2-4	IKER ARAMBURU CAMPOS	2*
2-4	MAITE IMATZ LOPEZ	2*
2-4	ANERTZ MUNIATEGI BILBAO	2*
5-7	BEGOÑA CALVO VICANDI	1*
5-7	NEREA GABANTXO MAGUREGI	1*

5-7	GOIZALDE GONZALEZ MOSTEIRO	1*
-----	----------------------------	----

Bigarrena: 2017ko ekainaren 9an berdinketak ebazteko zozketa egin zan eta horren ondoren, hurrenkera modu honetan geratu zan:

ZKIA.	IZEN-ABIZENAK
1	AINARA BILBAO LAKA
2	IKER ARAMBURU CAMPOS
3	MAITE IMATZ LOPEZ
4	ANERTZ MUNIATEGI BILBAO
5	GOIZALDE GONZALEZ MOSTEIRO
6	NEREA GABANTXO MAGUREGI
7	BEGOÑA CALVO VICANDI

Hirugarrena: Ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren arabera, alkatetzak izendapen proposamena egin behar deutso Osoko Bilkureari eta, azken honek, gehiengoz onetsi behar dau izendapen proposamena, onespén hori.

Laugarrena: 2017ko ekainaren 9an, alkatetzak, honako proposamena onartu eban:

“LEHENENGOA: Bermeoko Bake epaile legez, AINARA BILBAO LAKA andrea eta ordezeko legez IKER ARAMBURU CAMPOS jauna izendatzeko proposamena onestea eta, uko egingo balebe, goian jasotako hurrenkeraren arabera izendatzeko proposamena onestea.

BIGARRENA: Gernika-Lumoko Lehenengoko Instantzi eta Instrukzinoko Epaitegiari onespén horren barri emotea, EAEko Auzitegi Nagusiak egokia dan izendapena egin daian”.

Hori horrela, proposamena gehiengoz onetsita, Gernika-Lumoko lehen Instantzi eta Instrukzinoko Epaitegira bideratu behar da, EAEko Auzitegi Nagusiak izendapena egin daian.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2017ko uztailaren 19an

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria